

Prentsa oharra

Lehen Hezkuntzako ikasleentzako da topagunea

**EROSKIREN ELIKADURA ESKOLAK OHITURA
OSASUNGARRIAK BULTZATUKO DITU GASTEIZEN,
BERE LEHEN FESTA HANDIAN**

- **Bihar eta larunbatean karpa handi bat jarriko dute jokoekin eta tailerrekin Andre Mari Zuriaren plazan, Hiriburu Gastronomikoaren programaren barnean**
- **Joan den ikasturtean, 300 ikastetxetako 16.000 ikaslek baino gehiagok hartu zuten parte EROSKIren Elikadura Eskolaren jardueretan**

Gasteiz, 2014ko azaroaren 13a.- EROSKI Fundazioaren Elikadura Eskolak, Gasteizko Udalaren lankidetzarekin, lehen festa handia ospatuko du, bihar eta larunbatean, Arabako hiriburuan, Hiriburu Gastronomikoaren programa ofizialaren barnean. Helburua da Elikadura eta Ohitura Osasungarriari buruzko Heziketa Programaren edukia modu ludikoan helaraztea Lehen Hezkuntzako ikasleei.

"Haur gizentasun tasa kezkarria dago azken urteetan, bereziki haurren oraingo elikadura eta aisia ohiturengatik. EROSKIren Elikadura Eskola joera hori aldarazi nahian ari da osasunarekin eta Espainiako ikastetxe guztiekin zerikusia duten zenbait elkarterekin batean. Ikastetxe guztiek har dezakete parte programan eta doan erabili hor garatu diren eduki pedagogiko guztiak", adierazi du Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKI Fundazioko zuzendariak.

Eskalako jokoak eta "pertsonaliza" daitekeen menu bat

Ostiralak 14, 09:00etan, 350 metro koadroko karpa handi bat inauguratuko dute, zeinetan eskalako jokoak, puzgarriak eta askotariko jarduerak egin ahalko dituzten Gasteizko ikastetxeetako ikasleek. Bertan, elikadura orekatuaren jakintzak praktikan jarriko dituzte, eta orobat, bizi ohitura osasungarrienak, guztiak ere aurretik ikastetxean landuak. Berezko tamainan eta diseinu berritzaileekin, jokoen bidez ohartuko dira haurrak gosari on batek zer garrantzi duen, elikagai jakin bat zein maiztasunez jatea komeni den eta nola identifikatu EROSKI bere nutrizio etiketa aurreratuetan informazio gardenagoa eskaintzeko erabiltzen dituen semaforo nutrizionalak.

Festara iristean, parte hartzaileek taldeka jasoko dute jatetxeetako antzeko karta-menu bat. Helburua izango da menu bat sortzea, lehen platera, bigarrena eta azkenburuko bat. Ginkana erara, haurrek zenbait proba gairak beharko dituzte, menu osasungarriko plater horiek eskuratzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es

Bihotzaren Espainiako Fundazioak bat egin du EROSKIren Elikadura Eskolako heziketa proiektuarekin

Bihotzaren Espainiako Fundazioak eta [EROSKI](#) Fundazioak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute herritarren artean bihotzerako on diren ohiturak zabaltzeko. Leandro Plaza, Bihotzaren Espainiako Fundazioko presidentea, eta Alejandro Martinez Berriochoak, EROSKI Fundazioko zuzendariak, lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, eta hala, jarraipena emango diote bi erakundeek hamar urteko elkarlanari.

"Bizi ohitura osasungarriak sustatzea da EROSKIren Elikadura Eskolaren helburu nagusia. Alde horretatik, indartuta aterako da arrisku faktore kardiobaskularren inguruko heziketa, Bihotzaren Espainiako Fundazioaren kolaborazioari esker", adierazi du Alejandro Martinez Berriochoak.

Bihotzaren Espainiako Fundazioak edukiz hornituko du EROSKIren Elikadura Eskolako Elikadura eta Ohitura Osasungarriei buruzko Heziketa Programa, osasun kardiobaskularren inguruko modulu espezifiko bat eratuta, Espainia guztiko ikastetxeekin elkarlanean aritzeko. "Bihotzaren Espainiako Fundazioaren helburu nagusia da gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko herritarrak hezteak, bizi ohitura osasungarriak eustearen garrantziaz jabetarazita. Uste osoa dugu txikitatutako bihotzerako on diren bizi ohiturak hartzearen eta helduaroan horiei eustearen eraginez; horretatik, asko baloratzen dugu EROSKIren Elikadura Eskolako ikastetxeetarako prestatzen duen heziketa programa zabalean parte hartu ahal izatea", esan du Leandro Plazak.

Hirugarren urtea du EROSKIren Elikadura Eskolak haurren artean bizi ohitura eta elikadura osasungarriak sustatzen. Programak ikasgelarako saio teorikoak eta tailer praktikoak lantzen ditu. Espainiako guztiko 300 ikastetxe inguruk eta 16.000 haurrek baino gehiagok hartu zuten parte iaz heziketa programa horretan, zeina alor askotako aditu Batzorde Zientifiko batez osatuta egon zen, medikuak, dietetika eta nutrizionistak, psikopedagogoak eta pedagogoak, Hezkuntza Ministerioaren aginduei jarraituta.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es